

EZETZ BATERA BIHOTZAK ETA BURUAK

Hauteskundeak badatoz. Eta eskierki bildua du Viansson-Ponté kasetariak atzerri aldeko giroa: "jamais un peuple n'a été ainsi convié à écrire, sans révolution et sous la monarchie, le mot de démocratie sur une page blanche de son histoire". (Le Monde, 24-25/IV/77). Gaurko kondaira-orrialdea "garbi" omen dago, ezerk lardaskatzen edo zikintzen ez duelarik...

Horren garbi ote dago orrialde delako hori, ordea, gu euskaldunontzako?

"Bi miloi t'erdi gaituk, motel: horra hor gure zoritxar nagusia" -esaten zidan berriki adiskide batek. Eta hori bide da egia. Zeren eta zer dira gure herrietako harrabotsak eta zalaparta azkengabe horrik? Bizpahiru dotzena preso horiek zer pisu izan ote dezakete Estatuaren arauera, atzeritarrek berek Espainiako erresuman "page blanche", horrialde aratz gardena, besterik sumatzen ez duten tenorean?

Hemen, halere, ozenki entzuten dugu nun-nahi eta noiz-nahi: "presoak kalera! presoak kalera!". Urte t'erdi honetan barrera irten diren zazpirehun euskaldunetatik batto ere irten ez balitz bezalaxe... Bitxikeria hori (omen!) ulertu behar da. Bitxikeria hori azaldu beharra dago.

Gaur denak bide dira zabalak, liberak, denak bide dira sozialistak; eta hark ganoraz esaten zuen bezala: bi esku dituzte orain denek, ezkerre bata, eta ezker muturra bestea... Gobernuko aintzindariak berak anti-frankista agertzen zaizkigu; eta Blas Piñar-en jarraitzaileak, lehen oste gaitzez oratuak, bakandurik eta murrizturik gertatzen dira bapatean, basamortu betean oihuka ari. Eskuindarrak ez agerrian!

Era berean, eta Euskal Herriari gagoziolarik, orain eta bapatean, denak dira euskaltzale, denak dira abertzale. Urterik gogorrenetan gure "esentzialismoa", gure "burgeskaria" eta gure "atzerakeria" eten gabe salatzen zituzten talde haietxek, orain "Euskadin euskaraz" eta "Gora Euskadi Askatuta" oihukatzen dute kaletan eta enparantzetan.

Gaur anti-frankista eta abertzale, sozialista eta euskaltzale agertzea, begi onez ikusia da; eta, batzutan, gorenako puntuzkoek berek, azken batasuna ikutzen ez den ber, joera horik txalotzen dituzte, edo ezinbestean ontzat ematen.

Hots, antifrankismoak eta abertzale-tasunak ohorerik ez baina zigorra, txalorik ez baina presondegia zekarten urteetan, euskaldun batzuek antifrankistenen, ausartenen ere, euskaltzaleen askotan, Sasetaren eta Azkueren bidetik berriro ere abiatuz, burruka gogorretan den-dena, bizia barne, eskaini behar zela pentsatu

zuten. Eta eman ere bai batzuek (orain gartzeletan dauden horien anaia bizkiak), inolako ordainik jaso gabe. Zeren -eta, nork erreparatu du, gonbarazio batez, egun hauetantxe ospatu dela Mikel Gardokiren heriotzaren urtehurrena? Nork ditu gogoan oraindik Aranguren eta Goikoetxea, Artetxe eta Mondragon, Méndez eta Asumendi? Batzuek dena eman zuten faxismoaren kontrako gudaketan. Baina eskertuko ote zaien ere ez dakigu, guztia eman baitzuten doarik. Zertarako aipa, horretara, 1937an edo 1946an gure herriak jasan zituenak? Ahantzi egin dira!

Gaur gorenako postuetatik txalotzen den "askakuntza" delakoaren aintzindariak, ordea (beren eskaintzaren osoarengatik besterik ez balitz ere) lurpean dautzan euskaldun hauk eta haik izan ziren, eta oraindik presondegietan gelditzen diren haietxek borrokakide hurbil-hurbilak. Ausartago izanak, hain zuzen, heriotzatik gertuago egonak, umantenak eta esku-zabalenak: horra hor nor ez den oraindik gugana etorri. Burrukariago izana, eta orain gaitzetsiago, eta zigortuago, eta presoago.

"Presoak kalera" garrasia, horrela, gero eta ozenago irtetzen da eztarrietatik; oraindik ere gartzeletan gelditzen direnak hoberenak eta errespetagarrienak iruditzen baitzaizkio herriari. Eta 1936/1945/1970/1975/ urte segidan, herriak ez baitu inolako etdurarik sumatzen. Ezpal berekoak zaizkio Saseta eta Eustakio.

1945az geroztik, faxismoaren aurka-gudariak ohorea eta goratarrea franko jasorik daukate European gaindi. Zergatik ez gurean? Hauxe ez du herriak konprenitzen. Gure presoentzako bestetan eskaini izan den ohorerik eta goratzarrik ez baitu eskatzen, beroik askatasunean kalera ateratzea baizik.

Orain denek, bestalde, baita, baita oso goikoek ere, berrogei urte honetan eskubidezko egoerarik izan ez dela aitortzen dute. Garaia da hortaz, hura guztia gaudituko badugu, sistemaren kontrako ekintzen ondoriozko zigorketak eta taxak oro zeharo erauzi eta ezabatzeko.

Bestela zoritxarren soka ez da etengo; eta euskal dinamika azkartu zutenak kalteturik agertuko zaizkio herriari.

Bada besterik, dena dela, eta larriagorik. Presondegietan daudenak "ehuneko 90-tan" (CISE) "euskaldunak baitira". Nola ez luke hau Euskal Herriak hartuko zigorturik! Zergatik, ordea? Gaur Madrilleko buruzagi ofizialek berek salatzen dituzten faxistadak euskaldunok, gogorrean ere, konpon erazten saiatu ginelako...

Ongi dakit gartzelan daudenak zer joera politikotakoak diren; eta guretako batzuek, ni barne, ez gatzazkiela oso gogoko; puntu nagusi batzutan ez gabela gogaide. Hainbat eta libroago gaude horregatik, hain zuzen, denontzako amnistia osoa eskatzeko; euskaldunak direlako, abertzaleak direlako, zenbait aldiz burrukakide ere izan ditugulako. Eta hauteskunderik orain baldin bada, hein batez beroieie esker izango denez gero, lotsagarria litzateke amnistia hori hauteskundeak baino lehenago osorik ez gertatzea.

Bihotza adituz, hortaz (zergatik ez?), prestutasunez, politika-senaz ere bai, gure artean, Euskal Herrian alegia, amnistia OSOA gabe ez demokraziarik eraiki, ez faxismoa suntsitu denik, sinetsiko du inork. Amnistia osoa gabe fartsa itzela eta iseka lotsagaldua izango bailirateke hauteskunde delakoak; eta fartsa eta iseka horretan, agian, abertzaleok elkar harturik, inor ez bailitzateke (nik uste eta espero!) gertu parte hartzeko.

Berantegi baino lehenago, otoi: **PRE-SOAK KALERA!**

TXILLARDEGI

egun egungoa

Utikan

Baserri batetara joana naiz, aspaldiko ezagunei bisita egitera. Haiekin mintzatzen ari nintzela baserriko neskatxak diskagailua piztu du: erdal musikaren azken dizken berri bazekiela neri aditzera eman nahi omen zuen.

Oker zabilta, neska. Gaztetxotan musika ergel hori kilikagarri izan bazitzaigun ere, Aberri bidez hautatu genuen gero eta ez dugu atzera egingo.

Itzarriko ahal zara zu ere !

DANIEL IBARGOITI